



# JOXEMIEL BIDADOR

PASTORALA  
IRUÑEKO EUSKALDUÑAK



**2015eko  
URRIAREN 10a,  
LARUNBATA  
17:00etan,  
BURGOEN  
PLAZA  
IRUÑEA**

**ANTOLATZAILEAK:**



## SARRERA

Euskara gaur egungo Iruñeko hizkuntzetako bat da, zaharrena eta berezkoena, historian zehar, inbasioak eta populazio-mugimendu handiak gertatu baino lehen, bere biztanleek hitz egin eta bizi izan dutena. Denok ezagutzen dugu, ordea, bereziki azken bi edo hiru mendeetan zehar pairatu duen ordezkapen-prozesua, eta harekin loturiko faktoreak. Guztiarekin ere, sekula ez dira falta izan euskararen alde lan egin izan duten iruñearrak, baita gainbehera eta errepresioaren unerik latzenetan ere. Gaur egun ere falta ez diren bezala; menturaz sekula baino gehiago gara euskararen alde lan egiten dugun iruñearrok; menturaz, itxurazko askatasunaren geruza faltsu baten azpian, ez dira izan euskararen aurkako erasoak gaur bezain handiak.

Euskara maite dugun iruñearrak gara; kate luze baten azken kate-begiak gara, eta horrenbestez honaino ekarri gaituztenak omendu nahi ditugu, plaza zabalean, Iruñearen erdian, merezi dugun eta komeni den tokian. Eta Iruñeko euskalgintzaren sinboloetako bat delakoan, Joxe Miel Bidadorren pertsonaren bidez omendu nahi ditugu, berak, bere obraren bidez, gutxik bezala agerrarazi baitzuen Iruñeko euskaltzaleon izaera organikoa eta kolektiboa.

Eta jai giroan eta ekintza kultural baten bidez egin nahi dugu omenaldi hori. Horretarako, Zuberoako pastoralen moldean oinarritzen den ikusgarri bat prestatu dugu, 2015eko udazkenean Iruñeko herriari eskaini nahi dioguna.



## JOXE MIGEL BIDADOR

Joxe Migel Bidador Iruñean jaio zen, 1970eko martxoaren 28an, eta 2010eko martxoaren 2an hil zen. Iruñean, Altsasun eta Tuteran egin zituen ikasketak eta IPES, AEK eta Lazkaoko Maizpide barnetegian ikasi zuen euskara.

Gasteizen Euskal Filologia ikasi zuen. Bere ibilbide profesionala beti egon zen euskarari lotua, Iruñean eta Tuteran, bereziki, non euskara eta euskaraz irakatsi baitzuen.

Iruñeko euskal kulturaren azterna sakona utzi duen gizona izan da Joxe Migel Bidador, eta horixe da haren omenez eskaini nahi dugun ikusgarri honen kausa sortzailea.

Joxe Migelek euskal kultura eta bere herria biziki maite zituen, eta jakin zuen maitasun hau hainbat modutara gauzatzen eta adierazten.

Asko izan ziren jorratu zituen alorrak, eta denetan egin zuen bere ekarpena.

Dantzaria eta dantza herrikoia ikertzaile izan zen; Duguna taldearen partaidea eta San Lorentzoko dantzanteen taldearen sortzaileetakoa izan zen, eta ikertzaile moduan idatzi zuen *Dantzaren erreforma Euskal Herrian* 2004ko Unamuno Saria irabazi zuen Bilbon. Euskal Dantzarien Biltzarrak argitaratzen duen *Dantzariak* aldizkarian aritu zen.

Filologo moduan eta euskararen ikerlari moduan hainbat lan utzi zituztuen: *Noticias y restos del euskara de Val de Olla*, kasurako, baita gure hizkuntzak Nafarroan eduki duen bilakabidearen beste hainbat ere, bereziki, baina ez bakarrik, euskara eta Nafarroako erribera lotzen zituztenak.

Euskal kazetari moduan ere aritu zen, eta bi alderditan, gainera; kazetaritzaren historialari (*Euskara Iruñeko kazetaritzan*



(1910-1920). *Testu antología (1)* eta *Euskara Iruñeko kazetaritzan (1930-1936)*. *Testu antología (2)*, besteak beste) baita kazetari ere, Nafarkariako eta Diario de Noticiaseko kolaborazioek erakusten duten bezala.

Baternaingo Kontzejuko lehendakari hautatua izan zen.

Baina, egin zituen ekarpenen artean, baliteke euskal literaturari egin ziona garrantzizkoena izatea, ikertzaile, sortzaile eta sustatzaile eta babesle moduan egin ziolako. Ikertzaile, Agerre, Tapia Perurena eta beste hainbaten ezkutuko lanak berreskuratu zituelako; sortzaile, berak idatzia baita *Hutseaniko hazkurria* poesia liburua; eta babesle eta akuilu moduan, *Materiales para una historia de la literatura vasca en Navarra* lana ondu zuenean bezala.

Ez da oso ohikoa horrenbeste dohain, lan-ahalmen eta eragiteko gaitasun pertsona bakar batengan biltzea. Joxe Migel zen horietako bat.

Baina, orain arte esandakoa gutxi ez bada ere, zailena dena ere egiten jakin zuen: bere egitekoak apaltasunez, umorez eta guztien adiskidea izanez aurrera eramaten.

Asko ginen Bidador maite eta estimatzen genuenok, eta horregatik omendu nahi dugu.

## FITXA TEKNIKOA

**Izenburua:** Joxemiel Bidador, Iruñeko euskaldunak

**Ikusgarri-mota:** Zuberoako pastoraletan oinarritutako ikusgarria (hitza, kantu eta dantza)



**Iraupena:** 2 ordu eskax

**Sinopsia:** Hainbat jelkaldiren bidez Bidadorrek Iruñeko eta Euskal Herri osoko euskal kulturari egindako ekarpena gogoratzen da. Bide batez, Iruñean euskaraz bizi izan den jendea ere gogoratu eta omendu nahi dugu, Joxemielen figuraren bitartez.

**Antolatzaileak:** Duguna, Karrikiri, Euskaldunen Biltokia, Zaldiko Maldiko

**Errexentak:**

Ihitz Iriart eta Aritz Ibañez

**Idazlea:**

Jon Alonso

**Arizaleak:**

Mintxo Garaikoetxea (Narratzailea)

Lina Andueza (Julia)

Ana Telletxea (Andre presidenta)

Martxelo Sotes (Jaun Mera)

Leire Zabaltza (Andre tertulianoa)

Ibai Osinaga (Ibon)

Irantzu Fernandez (Perpetua)

Julen Leuza (Makagorria)

Rosa Ramos

Joseba Costa

Anatxo Manzano

Felix Palacios

Juana Cañada

Juana Mari Fernandez

Josu Erro

Aingeru Amorebieta



Fernando Rey  
Biki Nuin  
Aingeru Leoz  
Ana Sarobe  
Maite Goñi  
Mikel Yaben  
Jon Alonso  
Isabel Ibarrola  
Leire Leza

**Satanak:**

Mikel Tristan  
Julen Fagoaga

**Musikariak:**

Iñaki Sagardoi  
Roberto Antzano  
Koldo Azkona  
Eiande Aranburu  
Peio Belaskoain  
Osel Molinet  
Alvaro Diaz  
Beñat Lopez  
Migel Fagoaga

**Aurkezlea:**

Jose Anjel Irigarai

**Kantuen egilea**

Mixel Etxekopar

**Eszenografia**

Asisko Urmeneta



## Harremanetarako

Edurne Arrizibita 699 027823

[bidadorpastorala@gmail.com](mailto:bidadorpastorala@gmail.com)

[twitter.com/bidador](https://twitter.com/bidador)

[facebook.com/pages/Joxemiel-Bidador-Pastorala](https://facebook.com/pages/Joxemiel-Bidador-Pastorala)

[bidadorpastorala.wordpress.com](http://bidadorpastorala.wordpress.com)

